

Santibatek andere

Bere aire zaharrean

(Egun hartako eskaleak, etxe aitzinera, beren gerrenekin heldu direlarik)

<p>1 Santibatek, andere, Aurten bezala, gero're, Santibatek igortzen gaitu xingarketa gu ere.</p> <p>2 Ez gabiltza ederrez, Ez eta erre beharrez, <i>Kostuma zaharraren uztez, erreprotxa beldurrez.</i></p> <p>3 Tolos'eta Baiona... Jainkoak dautzul'egun ona ! Guri xingarraren ematera, jeiki bazinte huna !</p> <p>4 Ez dugu nahi urdia, ez t'ere erdia, Usaiagatik, kostumagatik, <i>liberako</i> zatia, Liberako zatia eta gerrenaren betea.</p> <p>5 Ez dugu nahi tripotik, <i>Bertzean</i> izan ez denik, Beldurrez eta tronpa gaitzazten... urdek...kaz beterik.</p> <p><i>(Etxek'andereari lausenguak)</i></p> <p>6 Etxean eder gerrena... Etxek' andere lerdena, Zur'eriko eraztun hortaz eros niro Baiona !</p> <p>7 Etxean eder kortzeiru, Dabiltzanean inguru... Etxe honetako etxek' anderea, Parabisuan aingeru !</p> <p>8 Etxean eder holako, Haurra sortzen deneko... Etxe honetako etxek' anderea zaldiz elizarako, Zaldiz elizarako, eta zilar kadiran jarriko !</p>	<p>9 Landan eder ilarra, Haren pean belarra... Etxe honetako etxek' anderea, zer emazte xilarra !</p> <p>10 Etxean eder ferreta, Haren gainean kaneta... Etxe honetako etxek' anderea, zer emazte plaxenta !</p> <p><i>(Nausiari, erdi lausengu, erdi mehatxu)</i></p> <p>11 Etxean eder aitzurra... Na(g)usi bilo izurra, Kolputto bat eman ezaguzu busti dezagun zintzurra !</p> <p>12 Kadiran zaude jarririk, Koloriak gorririk ; Guri xingarren ematera jeiki bazinte hortik !</p> <p><i>(Eskerren bihurtzea)</i></p> <p>13 Eman duzu nobleki, Konpainiak ere badaki ; Parabisuan sar zaitezela, hamabi aingeruekin, Hamabi aingeruekin eta zure familiarekin!</p> <p><i>(Deus ukaiten ez dutelarik)</i></p> <p>14 Goazen, goazen hemendik, Hemen ez duk xingarrik ; Etxe huntako gazitei xarrian sagiak umiak hazten tik !</p> <p>15 Etxean eder aihotza... Etxek' andere hortz motza, Su burdinaz hauts ditzatzula sudur eta kokotza !</p> <p>X. X. X. Gure Herria Seigarren urtea – Sixième année - 2 Otsaila – Février 1926</p>
---	---